

Poin Poin

Hilabete eta erdiz zurekin egon nintzen Birmanian 2007an; Myanmarren. Mugarik gabeko clown talde batekin joan nintzen, eta preso zeuden haurrentzat antzerkia egin genuen. Hiru frantses, sei birmaniar (horietariko bat zu) eta euskaldun bat (ni).

Ezin uka herri zoragarria dela zurea, zentzu guztietan liluragarria. Zure herriko jendeak bestearen errespetu ikaragarria erakusten du une oro. Zazpi etniaz osaturiko herri handi batekoa zara. Zazpi jendalde horien nahasketa kultural, erlijioso eta fisiko guztiak, bihurtune denek, maitemintzeko aukera eskaini zidatela onartu behar dizut. Baina hori zuk ere badakizu, zure herria ikaragarri maite baituzu. Han nengoela, tartaro baten antzerza sentitu nintzen, gizon erraldoi eta traketsa, edertasunaren itsasoan baldia. Herri pobrea da zurea, kolonizaziotik diktadura gogorrenean murgildu zena; zeren zuen kalterako, Birmaniako lurra oso aberatsa da: gasa, urrea, harribitxiak, metal bereziak... Europarren aberastasun gogean kokatu da zurea, kolonizazioaren iturburu.



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

Mendian egon ginen, oihan tropikalean, hondartza bazterretan, lepradun herri baztertuetan, Rangooneko etxola auzoetan, milaka haur presoren artean... Goizeko seietatik arratseko seietara, eguzkia altxatzen zenetik, desagertzen arte.

Han ezagutu genuen elkar. Aste batez, ikuskizun bat muntatu genuen, birmaniarrez antzeztu genuen, eta zuk ekintza komentatzen, osatzen, eta askotan itzultzen zenuen (zeren bai, nire birmaniarra oso makurra zen, hitz bakoitza zurekin egunero errepikatu arren). Zu, Poin Poin, Birmanian oso ezaguna zinen; telebistan ateratzen zen zirtolari-antzerkilari abila eta fina. Metro eta erdi, 50 kilo (soineko jantziak kontatuta) eta dena bihotz. Frantsesek ez bezala, asko galdetu zenidan gure herriaz. Zure herriaren ere ezberdinak badaude (zazpi etnia multzo, pentsa!) eta han ere gerlaz gerla ibili zarete. Bortizke-

ria poliziala bizi izan duten herrien arteko konplizitate bat eskaini zenidan. Ez bata ez besteak ez genekien ingelesa, eta genekien gutxia ez zen iristen bestearen adimenera. Somiatuk frantsesa eta birmaniera menperatzen zituen, eta hark itzultzen zituen ahal bezala, gure galderak, eta munduaren bi puntetako erantzunak. Zein ezberdinak garen zu eta ni, baina zein goxo izan zen elkar ezagutzea, garga-gardo txar bat eskutan, oihan basatian, autoak eskaintzen zigun argi bakar eta ahulean.

Irria ezpainetan ikusten zintudan goizetik arrats, eta lezio bat izan zen niretzat. Egoera oso latza zen, eta da oraindik. Lepradun herri batean antzeztu genuen, aurpegi eta gorputz itxuragabeen artean; 3, 4 edo 5 urteko umeak hesien atzean barrez leherrarazi genituen gure astakeriekin... Ez da arinkeria egiten den ofizio bat antzerkilaria izatea. Ezer ez duzu epaitzen Poin Poin, eta une oro dagoen ona azken tantaraino dastatzen badakizu. Barrotean atzean zeuden umeek barre egin zuten. Eta poztekoa da.

Oihanean, umezurtz eskola batean, emanaldia egin eta nekeak harturik zigarro bat erre genuen mendi tontor batean. 2-3 urteko neskatxa bat gozoki hurbildu zitzaidan hizketan ari ginen. Esku hartu zidan, eta besotari hartzeko keinua egin. Hartu nuen noski, eta loturik egon ginen bonobo ziminoek egin lezaketen bezala. Mundu basatian, maitasuna altxor bat da. Baina umezurtz eskolako serora hurbildu zitzaigun, irriñoa ezpainetan bera ere, eta ingeles tropikal baten hauxe esan zigun: «Ez sobe-

Negu honetan, zure herria altxatu egin da askatasunaren alde. Eta zuk seguru, irriz eta goxotasun osoz, altxamenduari beharrezko zuen ilusioa eman diozu



Gobernuaren kontrako protestak egin dituzte azken asteetan Myanmarren. STR

ra lotu, hiesa dauka, eta ez du luzaz iraungo». Gu bion begiak busti arren, ezpainetako irria mantendu genuen, neskatxari merezi zuen dirdira eskaintzen saiatu ginen, gure heinean. Zenbat iraun zuen momentu horrek? «Besarkada batzuk ez dira minututan kontatzen», zioen zure begiradak.

Negu honetan, zure herria altxatu egin da askatasunaren alde. Eta zuk seguru, irriz eta goxotasun osoz, altxamenduari beharrezko zuen ilusioa eman diozu. Pentsaera, begi dirdira eta esku zabaltasuna. Militarrak atzetik ukan dituzu, polizia eta justizia ere bai, beraien legediaren tresneria guztiarekin. Ihesi joan zara oihanera, baina ttattardunen eta polizia buruen mendeku gosea europarren diru gosea bezain handia da. Gure sakelako telefono mugikorrek, pantailek edo auto elektrikoek behar dituzten metal bereziak zure herriko meategietan ugari daudenez, hementengoa demokrata handiek zure herriko diktadurarekin itunak sinatuko dituzte. Zure emaztea preso sartu dute, zure haurrak ere bai, eta zu ihesi joan zara. Oraindik bizirik bazaude, oihan basatiko mendi tontor gainean izango zara seguruena, eta zure irri ederrenarekin animatuko dituzu zure kideak. Laster igoko naiz ni ere mendira, ea hemendik ikusten zaitudan.

IKUS-ENTZUNEZKOEN ARDURADUNA

(Erref.: 21-IK):

BERRIAren ikus-entzunezkoen arduradun lanpostua bete behar dugu. BERRIAren ikus-entzunezko proiektuen kudeaketa bere gain hartu, eta horien koordinazioaz, errealizazioaz eta produkzioaz arduratuko den pertsona baten bila gabiltza.

Zereginak:

- > BERRIAren ikus-entzunezkoen eskaintzaren kudeaketa osoa egitea eta bilakaera aztertzea: gaien aukeraketa, formatuak eta preproduzioa bideratzea; grabaketa eta edizioa gainbegiratzea; balorazioak egitea.
- > Berria telebistako lantaldea koordinatzea.
- > Beharrezko baliabideak aztertzea eta bilakaera lantzea.

Eskatzen da:

- > Ikus-entzunezko komunikazioaren arloko edo kazetaritza arloko ezagutzak izatea.
- > Edukien zuzendaritza, errealizazio eta produkzio lanetan aritu izana.
- > Koordinazio eta kudeaketa lanetan eskarmentua izatea.
- > Grabazio eta edizio lanetarako gaitasuna izatea.
- > Grafismo arloko ezagutza baloratuko da.
- > Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- > Lanaldi osoko kontratu egonkorra.
- > Berehala lanean hastea.
- > Lantokia Andoainen.

Lanpostuan interesa baduzu, bidali curriculum, maiatzaren 7a baino lehen, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus.